

2.- JARDUERA

Urte honetan iragan diren hilabeteetan, Gipuzkoako ekonomiak nabarmen egin du okerrera, oro har, bere jarduera maila. Industria sektoreak jaitsiera handia izan du: ahalmen produktiboaren erabilpena %80,5 inguruan ibili da, eta eskarien karterak okerrera egin du nabarmen 2012ko lehen seihilekoan (-%17,2), baina nabarmen hobetu da aurreko urteen aldean. Sektoreko biztanleria okupatua asko murriztu da, %11,1 jaitsi baita urteko lehen sei hilabeteetan. Bai eraikuntzan eta bai zerbitzuetan, eskura ditugun datuek adierazle aurreratuen okertze bat ageri dute. Kanpoko sektorea moteltzen hasi da, eta, horrela, esportazioen gehikuntza aurreko urteko hazkundearen erdia da (2011n hazkundera %18,6 izatetik aurtengo ekitaldiko lehen seihilekoan %10,5eko hazkundera izatera pasatu da); 2011n inportazioak %6,4 hazi ziren, eta 2012ko lehen seihilekoan %13,5 jaitsi dira. Azkenik, lan merkatuak oso bilakaera negatiboa du: biztanleria okupatua jaitsi da (-%3,3) eta langabetuen kopuruak gora egin du (%1,7). Horrela, lehen seihileko honetan langabezia tasa %9,0 izan da, eta 2008 eta 2011 bitarteko goranzko joerak jarraitu egiten du.

Industria produkzioaren indizeari buruz 2.1. taulan jaso diren urtearteko bariazio tasek –indize hori orokorra izan zein jardueratan banatua izan– erakusten dute jarduera ekonomikoa okerrera joan dela lehen bi ekitaldietan eta 2010eko ekitaldian ageriko hobekuntza egon zela (2011n areagotzen joan zen) eta 2012ko lehen zazpi hilabeteetan berriro okerrera joan dela. Jarduera okerrera joatea manufakturako industriren indizeak izan duen okertzearekin lotuta dago.

Produkzio orokorreko indizeak hazkunde negatiboa izan du 2012ko lehen zazpi hilabeteetan, eta taulan aztertutako lehen ekitaldietako datuetara hurbildu da. 2008an %2,7 jaitsi ondoren, 2009an galera handia gertatu zen, eta %20,3ko tasa negatiboa izan zen. 2010eko ekitaldian, joera aldatu zen, eta hazkunde tasa positibo bihurtu zen, nahiz eta

2.- ACTIVIDAD

La economía guipuzcoana, a lo largo de los meses transcurridos del presente año, ha mostrado, en general, un empeoramiento considerable en su nivel de actividad. El sector industrial ha experimentado un importante deterioro, con una utilización de la capacidad productiva en torno al 80,5%, la cartera de pedidos sigue siendo pesimista (-17,2% para el primer semestre de 2012) pero mejora sustancialmente con respecto a años anteriores, y una gran disminución en la población ocupada en el sector, que minorará un 11,1% en los seis primeros meses del año. Los datos disponibles tanto de la construcción como del sector servicios también reflejan un empeoramiento de los indicadores adelantados. El sector exterior empieza a ralentizarse, así, el aumento de las exportaciones es la mitad del aumento del año anterior (pasamos de un aumento del 18,6% en 2011 a un incremento del 10,5% en el primer semestre del presente ejercicio), mientras que las importaciones crecen el 6,4% en 2011, para disminuir el 13,5% en el primer semestre de 2012. Por último, el mercado laboral muestra una evolución muy desfavorable, con una población ocupada que disminuye (-3,3%) y una población parada que ha crecido (1,7%), la tasa de paro de este primer semestre se eleva al 9,0%, continuando con la tendencia ascendente del periodo 2008-2011.

Las tasas de variación interanual del **Índice de Producción Industrial**, general y desagregado por divisiones de actividad, recogidas en el cuadro 2.1. muestran un empeoramiento de la actividad en los dos primeros ejercicios y una evidente mejora en el ejercicio 2010, que se ve acrecentada en el año 2011, para volver a empeorar en los primeros siete meses de 2012. Este empeoramiento de la actividad está directamente relacionada al empeoramiento experimentado por el índice de las industrias manufactureras.

El Índice de Producción General registra tasa negativa de crecimiento en los primeros siete meses de 2012 y vuelve a la senda de los primeros ejercicios analizados en el cuadro. Tras disminuir en 2008 el 2,7%, se produce el descalabro en 2009, arrojando una tasa negativa del 20,3%. En el ejercicio 2010 cambia de tendencia y la tasa de crecimiento se

hazkundera oso urria izan zen (%0,7). 2011. urtean goranzko joera sumatu zen, %2,2ko tasa positiboa izan baitzen. 2012ko lehen zazpi hilabeteetan, joera aldaketa gertatu da, eta tasa negatiboa izan da (%4,8).

Jarduera adarren arabera, erazte industriari izan zuen gorabeherarik handiena denbora tarte osoan: 2008an %0,4ko tasa positiboa izan zuen, eta 2009an negatiboa izan zen (-%13,9); 2010ean -%25,8ko tasa izan zuen eta 2011n hazkundera tasa okerrenak izan zituen (-%23,1). 2012ko lehen zazpi hilabeteetan, tasak negatiboa izaten jarraitzen du, baina tasa xumeagoa da (-%9,2).

Energiaren adarrak izan du aldaketa txikiena. 2008an %3,8 jaitsi ondoren, 2009an jaitziera handiena izan zuen %9,4raino; 2010ean, aldiz, hobera egin zuen (+%2,3), eta 2011n berriro datu negatiboak izan zituen (-%5,1). 2012ko lehen zazpi hilabeteetan, tasak negatiboa izaten jarraitzen du, baina tasa txikiagoa da (-%3,0).

Manufaktura-industriaren adarrak Gipuzkoako balio erantsi gordinaren %89,0 inguru hartzen du, eta bere bilakaera asko hurbiltzen zaio indize orokorrak izan duenari: 2008an %2,6 jaitsi zen (hamarren bat gutxiago indize orokorra baino). 2009an, urte arteko tasa negatiboa izan zen (-%21,2), indize orokorrekoaren antzekoa (-%20,3); eta 2010ean indize orokorrarekin bat etorri zen (+%0,7), eta joera aldaketa adierazi zuen. 2011n goranzko joera hobera egin zuen, eta %3,0ko tasa positiboa izan zuen (indize orokorra +%2,2). Lehen zazpi hilabeteetan, joerak okerrera egin zuen, eta 4,9ko tasa negatiboa izan zuen, indize orokorrekoaren antzekoa (-%4,8).

convierte en positiva, aunque el crecimiento sea insignificante (0,7%). En 2011 se observa una mejoría de esta tendencia al alza, arrojando una tasa positiva del 2,2%. En los primeros siete meses de 2012 se cambia de tendencia, con una tasa negativa del 4,8%.

Por ramas de actividad, la industria extractiva es la que más fluctúa a lo largo del periodo, ya que parte de una tasa positiva en 2008 del 0,4%, en 2009 esa tasa se convierte en negativa (-13,9%), para registrar tanto en 2010 (-25,8%) como en 2011 (-23,1%) las peores tasas de crecimiento. En los primeros siete meses de 2012 la tasa sigue siendo negativa, pero la tasa es más discreta (-9,2%).

La rama de energía, por su parte, es la que recoge cambios menos bruscos. Tras disminuir el 3,8% en 2008, en 2009 se ve incrementada la disminución hasta el 9,4%, para mejorar en 2010 (+2,3%) y volver nuevamente a datos negativos en 2011 (-5,1%). En los primeros siete meses de 2012 continúa la tasa negativa, pero esta es más discreta (-3,0%).

La rama de industrias manufactureras, la cual representa alrededor del 89,0% del valor añadido bruto guipuzcoano, es la que muestra una evolución más similar al índice general: en 2008 disminuye el 2,6% (una décima menos que el índice general). En 2009 presenta una tasa interanual negativa del 21,2%, similar a la del índice general (-20,3%) y en 2010 coincide con el índice general (+0,7%) y marca un cambio de tendencia. En 2011 mejora la tendencia ascendente y arroja una tasa positiva del 3,0% (índice general +2,2%). Para los primeros siete meses empeora la tendencia y arroja una tasa negativa del 4,9%, similar a la del índice general (-4,8%).

2.1. taula.- Industriaren adierazleak (bariazio tasak %tan)
Cuadro 2.1.- Indicadores de la Industria (tasas de variación en %)

KONTZEPTUAK / CONCEPTOS	2008	2009	2010	2011	2012 (*)
IPI orokorra / IPI General	-2,7	-20,3	0,7	2,2	-4,8
IPI, indus. erazl.ak/IPI Ind.extractivas	0,4	-13,9	-25,8	-23,1	-9,2
IPI, manif.ind. / IPI Ind.Manuf	-2,6	-21,2	0,7	3,0	-4,9
IPI, energia / IPI Energía	-3,8	-9,4	2,3	-5,1	-3,0

(*) Urtariletik uztaiera bitarteko bariazioa / Variación desde enero hasta julio

Iturria: EUSTAT eta guk osatutakoa / Fuente: EUSTAT y elaboración propia

Oharra: txosten honetako tauletan, besterik esaten ez bada, bariazio tasak urteko batez bestekoen gainean kalkulatu dira. Salbuespena 2012. urtearekin egin da: izan ere, honetan aldagai bakoitzerako hartu den informazioa denbora tarteari buruzkoa da.

Nota: En los cuadros de este informe, si no se indica lo contrario, las tasas de variación están calculadas sobre medias anuales salvo en 2012 en el que se considera el período del que dispone la información para cada variable.

2.2 taula. - Industria jardueraren adierazleak. Enpresarien iritziak
Cuadro 2.2.- Indicadores de Actividad Industrial. Opiniones Empresariales.

KONTZEPTUAK / CONCEPTOS	2008	2009	2010	2011	2012
Ahalm. produk.erabilera / Utiliz. cap. productiva(1)	84,0	73,3	78,3	82,3	80,5 (I sem.)
Inbertsio ondasunak / Bienes de Inversión (1)	89,8	80,5	80,0	88,3	87,0 (I sem.)
Tarteko ondasunak / Bienes Intermedios (1)	81,8	69,5	80,0	82,0	79,0 (I sem.)
Kontsumo ondasunak / Bienes de Consumo (1)	82,5	73,5	79,0	73,0	72,0 (I sem.)
Eskarien kartera / Cartera de Pedidos (2)	-26,7	-58,0	-34,7	-29,8	-17,2 (I sem.)
Biztanleria okupatua/ Población ocupada	-0,2	-10,2	1,9	-0,6	-11,1 (I sem.)

(1) Ehunekoetan ahalmen produktibo osoari dagokionez.

En tanto por cien respecto a la capacidad productiva total.

(2) Eskarien kartera handia dutela eta eskarien kartera txikia dutela dioten enpresen arteko aldea.

Diferencia entre el porcentaje de empresas que dicen tener un nivel elevado de cartera de pedidos y el de las que señalan un nivel reducido.

Iturria: Gipuzkoako Merkataritza Ganbera / Fuente: Cámara de Comercio de Gipuzkoa.

Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganberak prestatutako **iritzi enpresarialen inkesta kualitatiboak** industria osoaren ahalmen produktiboaren erabilpena biltzen du. 2009. urtera arte, lamen horrek beheranzko joera izan zuen (%84,0 2008an eta %73,3 2009an). 2010eko ekitaldian, beheranzko joera amaitu zen eta ahalmena %78,3ra igo zen. Portzentaje horrek hobera egin zuen 2011n, eta %82,3 izan zen. Aurtengo lehen seihilekoan, joera aldaketa gertatu da berriro, eta ahalmena %80,5era jaitsi da.

Ondasun moten arabera, inbertsio ondasunak dira aipagarrienak, erabilpen portzentaje handiena baitute. Ondasun horietan jaitsiera gertatu zen 2009an ere: bederatzita puntu eta hiru hamarren galdu zuten, eta %80,5eko erabilpen tasa izan zuten. 2011ko ekitaldian, adierazleak hobera egin zuen, eta erabilpena %88,3 izan zen (zortzi puntu eta hiru hamarren handiagoa, aurreko ekitaldian baino). Indize orokorraren antzera, inbertsio ondasunen indizea nabarmen egin du okerrera (puntu bat eta hiru hamarren txikiagoa aurreko ekitaldian baino) 2012ko lehen seihilekoan. **Kontsumo ondasunak** atera dira okerren denbora tartean, aurrekoak ez bezala, zeren eta produkzio ahalmenaren erabilpen tasa okerrenak izan baitzituzten 2010etik aurrera (%79,0) eta 2009an %73,0ko erabilpena izan

La **encuesta cualitativa de opiniones empresariales** elaborada por la Cámara de Comercio, Industria y Navegación de Gipuzkoa recoge la utilización de la capacidad productiva para el conjunto de la industria. Hasta el año 2009, la capacidad tiene tendencia descendente (84,0% en 2008 y 73,3% en 2009). En el ejercicio 2010 esta tendencia descendente se rompe y la capacidad aumenta al 78,3%. Este porcentaje mejora en 2011 y se sitúa en un 82,3%. En el primer semestre del presente año se da nuevamente cambio de tendencia y la capacidad disminuye al 80,5%.

Por tipos de bienes, destacan los bienes de inversión por tener el mayor porcentaje de utilización. Estos bienes también recogen una disminución en el ejercicio 2009: pierden nueve puntos y tres décimas, alcanzando un porcentaje de utilización del 80,5%. En el ejercicio 2011 mejora el indicador y la utilización es del 88,3% (ocho puntos y tres décimas superior al ejercicio anterior). Al igual que el índice general, el índice de los bienes de inversión empeora sensiblemente (un punto y tres décimas inferior al ejercicio anterior) en el primer semestre del ejercicio 2012. Los **bienes de consumo**, a diferencia de los anteriores, son los peor parados en el periodo, ya que recogen las peores tasas de utilización de capacidad productiva a partir de 2010 (79,0%) y, en 2009 con un 73,0% de utilización. En el primer

zuten. 2012ko lehen sei hilekoan, denbora tarte osoko tasarik okerrena izan dute (%72,0). Bitarteko ondasunek produkzio ahalmenaren erabilpen tasarik txikiena izan zuten aldiaren hasieran (%81,8 2008an); tasa horrek hamabi puntu eta hiru hamarren okerrera egin zuen 2009an (%69,5, hau da, aldi osoan eta kontzeptu guztietan tasarik txikiena), eta nabarmen egin zuten hobera 2010ean (%80,0); 2011n beste bi puntu igo ziren (%82,0), eta aurtengo lehen sei hilekoan hiru puntu behera egin dute, %79,0 baita.

Enpresariak adierazitako **eskaera karteraren mailak** goranzko joera agertu du 2010etik aurrera. 2008an enpresarien espektatibak espero baino okerragoak ziren: Inkestatutakoen %26,7k uste baino emaitza okerragoak izan zituen. 2009an are gehiago egin zuen okerrera (-%58,3), eta denbora tarte osoko emaitzarik okerrena izan zuen. 2010eko ekitaldian, inkestatutakoen %34,7k espero baino emaitza okerragoak izan zituen; oraindik handia izan arren, zifra hori 23 puntu eta sei hamarren portzental txikiagoa da aurreko ekitaldiko emaitza baino. 2011ko ekitaldian, inkestatuen %29,8k espero baino emaitza okerragoa izan zuen, baina hobetzeko joera finkatu zen; eta aurtengo lehen sei hilekoan (bakarrik inkestatuen %17,2k izan du espero baino emaitza okerragoa) joera aldaketa egiaztatu da.

Sektoreko **biztanleria landunak** beheranzko joera argia agertu zuen, 2010ean izan ezik. Horrela, 2008an %0,2 jaitsi da, eta 2009an %10,2 jaitsi da. 2011ko ekitaldian, bakarrik %0,6 jaitsi zen, eta 2012ko lehen sei hilekoan izan du jaitsierarik handiena (-%11,1). 2010eko ekitaldian, biztanleria landuna %1,9 igo zen.

Eraikuntzaren adierazleek oso bilakaera desberdina dute 2008ra arte: sektoreko biztanleria okupatuak hazkunde tasa positiboa du; aldiz, adierazle aurreratuak okerrera joan dira bortizki. 2009tik aurrera, jadanik bi adierazleek beheranzko joera agertu zuten, sektorearen krisi handiarekin bat eginez, eta 2011n egonkortu zen adierazle aurreratuaren arabera. 2012ko lehen sei hilekoan, eraikuntzaren sektorearen egonkortzea egiaztatuta geratu zen.

semestre de 2012 recoge la peor tasa del periodo (72,0%). Los bienes intermedios parten de la tasa de utilización de la capacidad productiva más baja al inicio del periodo (81,8% en 2008), tasa empeorada en doce puntos y tres décimas porcentuales en 2009 (69,5%, tasa más baja del periodo y de todos los conceptos) y mejoran ostensiblemente en 2010 (80,0%), para recuperar otros dos puntos porcentuales en 2011 (82,0%) y volver a perder tres puntos en el primer semestre de este año, al situarse en el 79,0%.

El **nivel de la cartera de pedidos** manifestado por los empresarios refleja una tendencia ascendente a partir de 2010. En el ejercicio 2008 las expectativas empresariales, obtienen un resultado peor de lo esperado, el 26,7% de los encuestados. Este empeoramiento se multiplicó en 2009 (-58,3%) y obtuvo el peor resultado del periodo. En el ejercicio 2010 el 34,7% de los encuestado obtienen resultados peores de los esperados, cifra aún elevada pero inferior en 23 puntos y seis décimas porcentuales al resultado del ejercicio anterior. En el ejercicio 2011 en el que el 29,8% de los encuestados ha obtenido un resultado peor de lo esperado, afianza la tendencia de mejoría, y en el primer semestre de este año, en el que únicamente el 17,2% de los encuestados ha obtenido un resultado peor de lo esperado, se constata el cambio de tendencia.

La **población ocupada** en el sector muestra una clara tendencia a la baja, con la excepción del año 2010. Así, minora el 0,2% en 2008 y baja el 10,2% en 2009. En el ejercicio 2011 únicamente baja el 0,6% y registra la mayor pérdida en el primer semestre de 2012 (-11,1%). En el ejercicio 2010 la población ocupada aumenta el 1,9%.

Los indicadores disponibles de la **construcción** presentan una evolución muy dispar hasta 2008 con tasas de crecimiento positivo de la población ocupada del sector, por un lado, que se ve contrarrestada por el empeoramiento en los indicadores adelantados. Ya a partir de 2009, los dos indicadores muestran tendencia a la baja, coincidiendo con la fuerte crisis en el sector, que se estabiliza en el ejercicio 2011 según los indicadores adelantados. En el primer semestre de 2012 se constata la estabilización del sector de la construcción.

Jardueraren adierazle aurreratuak, hau da, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoak bisatutako proiektuei dagokien **etxebizitza kopuruak** beheranzko joera du, aztergai dugun denbora tartean. Aldiaren hasieran, etxebizitza bisatuen kopurua jaitsi zen (-%36,9) 2008an. 2009an, jaitsiera hori moderatu (-%12,4) eta 2010ean beherantz jarraitu zuen (-%35,5). 2011ko ekitaldian, etxebizitza bisatuen kopuruak joeraz aldatu zuen, eta %19,9ko hazkundera izan zuen. Joera hori sendotu da aurtengo lehen sei hilekoan, %55,7ko hazkundera izan baitu.

El indicador adelantado de la actividad, el **número de las viviendas** correspondientes a proyectos visados por el Colegio Vasco Navarro de Arquitectos, presenta una fuerte tendencia a la baja a lo largo del periodo recogido. Comienza el periodo con una disminución del número de viviendas visadas en 2008 (-36,9%). En 2009 este descenso se modera (-12,4%) y continúa su camino descendente en 2010 (-35,5%). Ya en 2011, el número de viviendas visadas cambia de tendencia y registra un incremento del 19,9%. Esta tendencia se consolida en el primer semestre del presente año con un incremento del 55,7%.

2.3. taula. Eraikuntzaren adierazleak (bariazio tasak %-tan)
Cuadro 2.3.- Indicadores de Construcción (tasa de variación en %)

KONTZEPTUAK / CONCEPTOS	2008	2009	2010	2011	2012
Etxebizitza bisatuak / Viviendas visadas	-36,9	-12,4	-35,5	19,9	55,7(I sem)
Biztalaria okupatua / Población ocupada	4,2	-10,7	-11,9	-1,2	-2,9(I sem)

Iturriak: Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoa eta EUSTAT / Fuente: Colegio Vasco Navarro de Arquitectos y EUSTAT

Sektoreko **biztanleria landunak** behera egin du nabarmen periodoan, baina azken bi ekitaldietan moteldu egin da joera hori. Hala, bada, 2008an gora egin bazuen ere, 2009an negatiboa izan zen haren tasa, %10,7koa, eta %11,9koa 2010ean. 2011ko ekitaldian ere tasa negatiboa izan zen, baina enplegua egonkortu egin zen (%-1,2). 2012ko lehen sei hilekoan, tasa negatiboa izan arren ez da hain handia (%-2,9).

La **población ocupada** en el sector también recoge una clara tendencia a la baja en el periodo, pero esta bajada se ve ralentizada en los dos últimos ejercicios. Así, tras crecer en 2008, presenta una tasa negativa del 10,7% en 2009 y del 11,9% en 2010. En el ejercicio 2011 sigue la tasa negativa, pero el empleo se estabiliza (-1,2%). En el primer semestre de 2012 (-2,9%) sigue la tasa negativa, pero ésta no es tan elevada.

Zerbitzuen sektorean, ordea, **biztanleria okupatuak** joera positiboagoa du: 2008an, %0,5 egin zuen behera, eta pixka bat gora 2009an (+%0,1). 2010ean, joera negatiboa bilakatu zen (-%0,8), eta 2011n berriro igo (+%0,2). 2012ko lehen sei hilekoan, joera berriro aldatu, eta negatiboa bilakatu da (-%0,1). Beraz, denbora tarte osoan gutxi edo asko egonkor eutsi dio biztanleria landunak.

En el **sector servicios**, la **población ocupada**, en cambio, muestra una tendencia más positiva: en 2008 presenta una tasa de disminución del 0,5%, que se recuperarse ligeramente en 2009 (+0,1%). En 2010 cambia nuevamente de tendencia y se torna negativa (-0,8%), para recuperarse en 2011 (+0,2%). En el primer semestre de 2012 cambia nuevamente de tendencia y se torna negativa (-0,1%). Por tanto, la población ocupada se mantiene más o menos estable en todo el periodo.

Hoteletan emandako gauen kopuruak hazkunde-tasa negatiboa izan zuten denbora tarteaen lehen urtean eta azkenekoan. 2008an, %4,7 egin zuen behera. 2009an, pixka bat hazi zen (0,5%), eta finkatu egin zen 2010ean (%7,0) eta 2011n (%1,7). 2012ko

Las **pernoctaciones hoteleras** presentaron tasas negativas de crecimiento durante el primer año del periodo y el último. Así, descendiendo el 4,7% en 2008 para crecer ligeramente en 2009 (0,5%) y consolidar el crecimiento en 2010 (7,0%) y en 2011 (1,7%).

lehen hilabeteetan, joera negatiboa izan da (%-4,3); lehen hiru hilabeteetan %7,3 egin zuen behera, eta, bigarrenean, %4,8.

En los ocho primeros meses de 2012 se observa una tendencia negativa (-4,3%), con una disminución en el primer trimestre del 7,3% y del 4,8% en el segundo.

2.4. taula.- Zerbitzuen adierazleak (bariazio tasa %-tan)
Cuadro 2.4.- Indicadores de Servicios. (tasa de variación en %)

KONTZEPTUAK / CONCEPTOS	2008	2009	2010	2011	2012
Hoteletako gau-egonaldiak / Pernoctaciones hoteleras	-4,7	0,5	7,0	1,7	-4,3 (1)
Bidaiarien aire garraioa / Tráfico aéreo pasajeros	-13,6	-22,0	-9,0	-13,3	4,8 (1)
Merkantzien itsas garraioa / Tráfico marít. mercancías	-5,9	-26,6	10,7	-16,7	-4,8 (1)
Biztanleria okupatua/ Población ocupada	-0,5	0,1	-0,8	0,2	-0,1 (2)

(1) Urtarriletik abuztura bitarteko bariazioa / Variación desde enero hasta agosto

(2) Urtarriletik ekainera bitarteko bariazioa / Variación desde enero hasta junio

Iturriak: Pasaiaiko Portuko Agintaritzza, Hondarribiko Aireportua eta EUSTAT. / Fuentes: Junta del Puerto de Pasaia, Aeropuerto de Hondarribia y EUSTAT.

Bidaiarien aire-zirkulazioak
 beheranzko joera izan du 2012ra arte. 2008an, %13,6ko tasa negatiboa izan zuen. 2009an, %22,0 egin zuen behera, eta 2010ean, moteldu egin zen beherakada (%-9,0). 2011n, %13,3 egin zuen behera. 2012ko urtarriletik abuztura, ordea, joera aldatu eta positiboa bilakatu da (+4,8%); gainera, joera positiboari eutsi dio, uztailean %15,9 egin baitzuen gora, eta abuztuan %12,3.

El tráfico aéreo de pasajeros ha presentado una tendencia negativa hasta llegar a 2012. En 2008 arroja una tasa negativa del 13,6% y en 2009 baja un 22,0%, para moderarse la disminución en 2010 (-9,0%). En 2011 baja un 13,3% y de enero a agosto de 2012 cambia la tendencia y se torna positiva (+4,8%), y se atisba mejoría, dado que agosto registra un aumento del 12,3%, tras haber aumentado en julio el 15,9%.

Pasaiaiko Portuko **salgaien itsas zirkulazioak** behera egin du periodo osoan, 2010eko ekitaldian izan ezik; hortaz, 2010ean salgaien itsas zirkulazioan joera-aldaketa egon arren, zapuztu egin da hazkundearen itxaropena. 2008an, %5,9 egin zuen behera, eta 2009an ezin beherago egin zuen (-%26,6). 2010ean, hazi egin zen pixka bat (%10,7), baina 2011n joera berriro aldatu, eta %16,7 egin zuen behera. 2012ko lehen zortzi hilabeteetan moteldu egin da beherakada (%4,8).

El tráfico marítimo de mercancías del Puerto de Pasajes, presenta un descenso en su actividad durante todo el periodo, a excepción del ejercicio 2010, y se esfuma la esperanza de cambio de tendencia originada por el tráfico marítimo de mercancías del año 2010. En 2008 desciende un 5,9% y en 2009 se desploma (-26,6%). Ya en 2010, se recupera la tendencia alcista y crece un 10,7% en el ejercicio. En el ejercicio 2011 cambia de tendencia y desciende el 16,7%, descenso que se modera en los primeros ocho meses del ejercicio 2012 con una disminución del 4,8%.